

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko ekainaren 19a. IX. urtea. 2.369. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Ibarbia, Combarieiu eta Vazquez lasterkariak osatu zuten nesken podiuma; mutiletan, Lariz, Ait Chau eta Beunza izan ziren sariak jaso zituztenak. M. GALARRAGA

Ait Chau eta Combarieiu, garaile

III. Txindoki Bertikala proban 155 parte hartzaile izan dira, eta gailurrera igotzen azkarrenak Hassan Ait Chau billabonatarra eta Maud Combarieiu urruñarra izan dira

Aitziber Ibarbia zizurkildarra bigarren iritsi da proba nagusian; beteranoetan, aurrenak Nerea Amibilia zizurkildarra eta Juan Mari Garin alegiarra izan dira ◊6

Herritarrek Tolosako Larramendin lurperatzea egitearen alde egin dute

Udalak parte hartzea nabarmendu du, %60,6a joan baita botoa ematera; «herriaren eraikuntzan protagonista izateko nahia azaldu dute» ◊2

Isidro Larrañaga akordeoi jotzailearen laugarren diskoa, kalean

82 urteko musikari tolosarrak 'Hauspoak gidatutako bizitza' izenburupean grabatu du lana, seme baten eta ikasle ohien laguntzarekin ◊3

Herriko ostalariak Tolosa & CO elkartearen sartu dira

Tolosa Degusta & Co marka sortu dute, eta elkartearen zuzendaritzan ostalaritzako bi kide gehitu dituzte; San Joan jaien harira kanpaina berezia egingo dute ◊3

Leire Olaberria bigarren, Villabona-Zizurkil Sari Nagusian

Ikaztegiako txirrindulariak elite mailan hartu zuen parte eta Anna Sanchiz bizkaitarraren atzetik helmugaratu zen ◊7

Denon ekinez, auzoa eginez

Larramendi auzoak erabaki du

Eskerrik asko denoi parte hartzeagatik, auzoaren onerako.



Adinekoen Astea ospatzen ari dira lurreamendi egoitzan

I. Garcia Landa Tolosa

Iurreamendi Egoitzan egun hauetarako Adinekoen Astea antolatuta dute. Gaur goizean meza (10:00) eta txiste eta abesti txapelketa (11:30) izango dituzte, eta arratsaldean txokolate jatea eta 90 urte bete duten egoiliarrei omenaldia (17:00). Bihar, meza (10:00), tonbola (11:00), Iurreamendi Egoitzako koroa (16:30) eta Tolosako musika eskolako ikasleen emanaldia (17:30). Ostegunean, meza (10:30), binoa kartekin (11:00) eta Alaitu koroa (17:00). Azken egunean, ostiralean, meza (10:30), galdera lehiaketa (11:00) eta bingoa (16:00) izango dituzte Iurreamendiko egoiliarrek.

→ Laburrak

Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldiak

KULTURA › Loatzo musika eskolako ikasleak ikasturte amaierako kontzertuak ematen ari dira. Gaur, Iruran, 18:00etan, herriko musika eskolan, eta Alegian, 19:00etan, kultur etxean, Txintxarri abesbatzak eta Loatzoko abesbatzak elkarrekin abestuko dute. Bihar, Villabonan, 18:00etan, Gurea aretoan tailerretako emanaldia, eta Altzon, 18:30ean, ikasleen saioa eskola azpiko aretoan.

Udal musika eskolan matrikula egitea zabalik

TOLOSA › Tolosako udal musika eskolak 2012/2013 ikasturteko matrikula irekita dagoela jakinarazi du. Gaur arteko epea dute bertako ikasleak eta ekainaren 26tik 29ra arte aurten instrumentua aukeratu behar dutenek.

Larramendin lurperatzearen alde egin dute eta udalak parte hartzea goraipatu du



Larramendi auzoko zenbait bizilagun, Arkaute etxean botoa ematen, larunbatean. R. CALVO

Bozkatzeko aukera zutenen %60,6ak eman du botoa; udalak «herriaren garaipena» izan dela esan du

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoko bizilagunek lurperatzearen alde egin zuten larunbatean egindako kontsultan. Parte hartzea %60,59a (1.027 pertsona) izan zen eta horietatik %61,54ek (632 boto) A proposamenaren alde egin zuten, hau da, lurperatzearen proiektuaren alde. B proposamenaren alde %38,15k (391 boto)

egin zuen. Bi auzotarrek zuriz bozkatu zuten eta bi boto baliogabe izan ziren. Tolosako Udalak parte hartzea nabarmendu du: «%60tik gorako parte hartzea historikoa da eta mugarririk bat jartzien demokrazia zuzenari dagokionean». Galdeketa «arrakasta handia» eta «herriaren garaipena» izan dela gaineratu du.

Udalak «harrotasunez» esan du «inoren laguntzarik gabe» egin duela eta oposizioaren jardua egin duela. «Oposizioa, EAJ buru, galdeketa oztzatzen eta giroa gaiztotzen saiatu da etengabe, eta gure ustez, jarrera guztiz arduragabea erakutsi du». Bestalde, herritarren «heldutasuna» txalotu du, «herriaren eraikuntza protagonista izateko nahia» erakutsi dutelako, eta ez delako «inongo istiluririk» egon.

Galdeketa emaitzak «bederatzitik hilaibeteko prozesu parte hartzailea guztiz beharrezkoa zela» frogatu du, udalaren ustez. Batetik, B aukeraren alde egin duten auzotarrak «entzunak izateko eta aintzat hartuak izateko eskubide osoa» zutela esan du, «orain arte urrutia izan den eskubidea». Onartua zegoen proiektuaren inguruan prozesu parte hartzaileak azaleratu du «dena ez zela adostasuna», udalaren iritziz. Bestetik, A aukeraren alde

egin dutenek «gehiengo argia» osatzen dutela esan du; «baina ez dira gauza bera proiektu bat onartzea eta proiektu bat hautatzea», dio udalak.

Udalak demokrazian sinesten duela esan du, «egunero-egunero herritar bezala gauzatzen den demokrazian, ez lau urtean behin boza emanez soilik gauzatzen den hartan». Eta horrek «herritar arduratsuak» behar ditueka gaineratu du.

Aste honetan enpresa eraikitzaileekin harremanatean jarriko dela esan du udalak, urbanizazio lanei lehenbailehen ekiteko. Lehenengo Uzturre kalea eta N1eko sarrera-irteera lotu nahi dutela esan du udalak, eta obra hori hasteko prozesua aurreratu doala azaldu du.

Larramendi Bizirik elkarteak auzotarrak zoriondu ditu larunbatean erakutsi zuten «ardura handiagatik». Elkartearen ustez, parte hartze prozesuaren zilegitasuna «guztiz frogatu da», bai prestaketa nola egin den ikusita eta baita auzotar askok parte hartu dutelako galdeketa.

Galdeketa emaitza ez bada ere Larramendi Bizirik elkartearen iritziz egokiena, bere ustez «auzoa beti aterako da indartuta horrelako prozesu batetik». Elkartetik azaldu dutenez, «auzo

hobeagoa eraikitzeko lanean» jarraituko dute, eta bere asmoetako bat «guztien artean hobetzea» da. Helburu hori betetzeko, «apalki eta elkarren arteko errespetu osoz», elkarteko ateak irekita daudela esan dute bertako kideek.

EAJren eskaerak

Bere aldetik, EAJk azaldu duenez, «aurreko udalbatzak onartutako proiektuaren gaineko herri kontsulta egitea ez du begi onez ikusi». Batetik, «bertako bizilagunak eremu urbanistiko zehatz batean eta baldintza jakinetan erosi zuten bere etxebizitza», esan dute. Bestetik, proiektuaren fase horretan aldaketak egiteak udalari «hainbat arrisku» suposatu dakiokela gaineratu du. Horrez gain, etorkizunari begira, auzoko barne kohesioari ez eragitea espero duela esan du EAJk.

Alderdi jeltzaleak parte hartze «handia» izan dela nabarmendu du eta, beraz, «bizilagunen iritzia» zuzen dagoela dio. Bide batez, auzoko bizilagun guztiak zoriondu dituzte bere «inplikazio, mobilizazio eta konpromisoagatik». Udal gobernuari bi eskaera egin dizkio EAJk. Batetik, udal proiektuetan herri galdeketa zein irizpideen arabera egingo diren definitzea, eta, bestetik, lurperatzearen eraikuntza azkartzea; «urtebete baino gehiagoko atzerapena du dagoeneko proiektuak, eta bizilagunak lehenbailehen aurrera eramatea eskatzen dute», gaineratu du. Proposamen bat ere egin dio udal gobernuari: «Partaidetza prozesu bat ireki dezala, auzoko bizilagunekin eta orokorrean tolosar guztiekin, Arkauteko eraikinak izango dituen erabilera inguruak».

PSE-EEk ere bere iritzia eman du galdeketa ondoan, eta udal gobernuak osatzen duten Bildu eta Aralarri zuzendutako, bere planteamenduek «herritarren gehiengoaren babesik» ez dutela jasotzen esanez. PSE-EEren ustez, bizilagunek ez die utzi udal gobernuari «bere iritzia baldintzatzea, udal gobernuak bere erabakiak herritarren parte hartze prozesu gisa mozorrotu arren».

Bizilagunek «modu oso aktiboa» parte hartu zutela esan du PSE-EEk, eta lurperatzea bere barne hartzen duen eta indarrean dagoen proiektuari «baieztoko biribila» eman diola gaineratu du. Bide horretatik, PSE-EEk udal gobernuari gomendatu dio, atez ateko egitasmoari lotura zuzena egin, «aurrera begira bere aurkako iritzia berri jaso dezala, etorkizunean inposatu nahi duen eta gehiengoaren onpekin ez duen proiektuekiko».

Bere aldetik, Aralarretik azaldu dutenez, «herritarrek eman dute bere hitza eta orain udalak erabaki hori aurrera eraman behar du ahalik eta modu azkarrean eta egokienean».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Isidro Larrañaga, argazkiaren erdian, bere azken diskoa aurrera ateratzeko lagundu dietenekin. I. URKIZU

«Gogo handiz» osatu du bere azken diskoa Isidro Larrañagak

82 urterekin, 'Hauspoak gidatutako bizitza' izenburupean argitaratu du bere laugarren lana akordeoi jotzaile tolosarrak

Semea eta ikasle ohiak bidelagun izan ditu Larrañagak, diskoaren grabaketan

Itzea Urkizu

Hauspoak gidatutako bizitza izenburua aukeratu du, Isidro Larrañaga akordeoi jotzaileak, bere laugarren diskoarentzat. Pasa den ostiralean aurkeztu zuen, proiektuan bidelagun izan dituen semea eta ikasle ohiakin batera.

82 urterekin argitaratu du La-

arrañagak bere laugarren lana, baina *Hauspoak gidatutako bizitza* ez da disko arrunta izango. Batetik, 2011n grabatutako piezak entzungai izango dira izenburu horren azpian, eta Isidro Larrañagaren akordeoi doinuek izango dute laguntza musikalik, ikasle ohiak eta semea elkarlanean aritu baitira berarekin: Joxe Mendi-

zabalek konponketak egin ditu, eta musika ekoizpena ere bere ardua izan da; Xabier Zubeldia pianoan, teklatuan eta konponketekin aritu da; Jon Ander Larrañaga semea, berriz, gitarra akustikoarekin, elektrikoarekin, klasikoarekin, mandolinarekin eta banjoarekin aritu da diskorako, eta azkenik, Iñigo Salaberriak jitu ditu biolina eta perkusioa.

Era berean, ordea, Larrañagak berak duela gutxi etxean topatutako 1979ko grabazio bat berreskuratu dute lan berriarekin batera argitaratzeko; 1979 izenburua jarri diote. Guillermo Lazkano zenak, bere abesti batzuk grabatzea proposatu zion Larrañagari, eta lan hauek estudioan grabatu bi-

tarte, Larrañagak konponketak etxean grabatu zituen, kasete batean. Grabaketa hau nabarmendu nahi izan zuten Isidro Larrañagaren ikasle ohiak: «Harrigarria da grabaketaren kalitatea, musikalki, gaur egungo teknologiaren laguntzarik gabe». Horrela beraz, Kaki Arkarazok Garate estudioetan lana masterizatu eta egokitu ondoren, disko berriari txertatu dute lana.

Betiko bidelagunak

Diskoan lagundu dioten adiskide, ikasle ohi eta semeak, begirunezko hitzak izan zituzten akordeoi jotzailearentzat. Joxe Mendizabalek, *Hauspoak gidatutako bizitza* lana «Isidroren ikuspegitik» egin

dutela nabarmendu zuen: «Instrumentazioarekin denbora luzez aritu gara lanean, baina aspalidandik ezagutzen dugu elkar, eta bagenekien zer nahi zuen, beraz, lana oso gustura egin dugu».

Xabier Zubeldia ere Isidro Larrañagaren ikaslea izandakoa da, eta Larrañagaren laugarren diskoan parte hartzea ohore bat izan dela dio: «Bera izan zen gure maisua, eta plazer izugarria izan da».

Jon Ander Larrañaga semeak ere «ohorea» izan du hizpide: «Benetan polita geratu da, eta bera ere pozik dago. Horrelako akordeoi jotzaile bat entzutea ohore bat da».

Laugarren diskoa grabatzeko gogo handia zuela azpimarratu zuen Larrañagak berak, prentsaurrekoan: «Lanean hasi nintzen abestiak eta konponketak prestatzen, eta ondo prestatu nituen behatzak ere, akordioa jotzeko». Horrela beraz, Jon Ander La-

Diskoa 10 euroren truke salgai izango da Tolosako denda eta tabernetan

arrañaga semearekin aritu zen prestaketetan, eta ikasle ohiak ideia proposatu zienean, hauek seguitan baiezkota eman zituen. Larrañaga oso pozik dago egindakoarekin: «Oso ondo aterata da guztia, eta ikasle izandakoez ere lan handia egin dute».

Azkenik, aipatzekoa da akordeoi jotzailearen inguruko dokumentala ere abian dela. Isidro Larrañagaren bizitza hari nagusitzat hartuta, garai bateko pasadizoak, Larrañagaren testigantzak eta bestelakoak ikusi ahal izango dira.

Hauspoak gidatutako bizitza 10 euroren truke izango da salgai, Tolosan, Zumbeltz eta Elkar musika dendetan, eta hainbat tabernetan.

Ostalariak ere Tolosa & Co-ko kide aurrerantzean

Merkatariek 1.000, 500 eta 250 euroko txeketak zozketatuko dituzte uztailean, San Joan jaien harira

I. Urkizu

Pasa den urtarrilean aurreratu bezala, Tolosa & Co elkarteak pauso bat gehiago eman du, eta herriko ostalariak ere elkarteko kide izango dira aurrerantzean, Tolosa Degusta & Co izena hartuta.

Tolosa Degusta & Co marka sortze bidean da, eta elkarteko zuzendaritzan bi kide gehiago sartu direla azaldu du, Fermin

Montilla lehendakariak: «Ostalarien ordezkariak izango dira bi kideak».

Ostalarien ordezkariak eskerak eman nahi izan dizkiote Tolosa & Co elkarteari: «Guztiok aurrera egitea nahi dugu». Bide horretan, eta San Joan jaiak probestuz, ekainaren 21etik 25era bitarte, Vallformosa ardoa 1,5 euroren truke eskainiko dute elkarteko tabernetan.

Era berean, ekainaren 29tik uztailean 1era bitarte, Tolosand blues jaialdiaren harira, pintxo eta ardo bereziak izango dira tabernetan, eta pub-ek, berriz, kubata bakoitzeko txupittoa eskainiko dute doan. «Gastronomiaren esparruko jarduerak antolatzen diren bakoitzean, geronek ere

promozio eta eskaintza bereziak martxan jartzea da gure asmoa», azaldu zuen ostalarien ordezkari den Ibon Leundak.

Datozen hilabeteetan, Tolosa Degusta & Co-ren inguruko informazio gehiago emango dute elkarteko kideek.

Sanjoanetako kanpaina

Tolosa & Co elkarteko berrikuntzak aurkezteaz gain, urtero San Joan jaien harira, merkatariek antolatzen duten kanpainaren berri ere eman zuten aurkezpenan.

Urtero erakusleihoak apaintzeko, dantzarien alpagatak eta uztaixikiak banatzen dizkiete merkatariei, eta aurtan, Udaberri dantza taldearen urteroko lana-



Merkatariek eta ostalariak topa egin zuten, elkarlanean harira. I. URKIZU

rekin bat eginez, dendariak ere litzar hostoak jarriko dituzte San Joan egunean.

Bestalde, elkarteko dendariak

1.000, 500 eta 250 euroko hiru txeketak zozketatuko dituzte bezeroen artean, eta datorren uztailean 17an izango da zozketa.

Irudia Tolosa



SAN JOAN JAIETARAKO GIROTU DIRA TOLOSARRAK

Sanjoanek ostiralean hasiko badira ere, pasa den aste-buru honetan ekitaldi ugari izan dira herria giroteako. Garadu azoka izan zen San Piaritzisko pasealekuan eta San Joan jaietako azoka bereziak hartu zuten Trian-

guloa (lehen bi irudiak). Urteroko ohiarekin jarraituz, Gernikako arbolaren inguruan koardillen arteko 3x3 kaleko saskibaloia txapeketara (hirugarren irudia) izan zen eta Berrorgrade taldea izan zen irabazlea. Herri Musika Tres-

nen Topaketa ere egin zuten egun guztian zehar (azken irudia), eta luntzean Sagardo Eguna ere izan zen. Igandean ere xake eta futbol partidak izan ziren, besteak beste. © I. CALVO



Ibargarrek hamaika aukera izan dute Gazte Festetan

Igandean egitekoak zireni "Conquistour" telebista saioko grabaketa bertan behera utzi zuten

R. Calvo Ibarra



Alurr dantza taldearen emanaldia, plaza. © I. CALVO

ETB2ko Conquistour saioko grabaketa egingo zutelako iragarri bazuten ere, ostiralean prentsaurrean salatu zuten ETB2ko Hostoi ekoiztetzaiek «azken momentuan» grabaketa bertan behera utzi eta erabaki zuten «segurtasuna eta grabatzeko arazo teknikoak» argudiatuta. «Gure ustez ulertzen da horrelako programa batek bi atzokia horiek erabiltzea. Proba euren aurrean egin

genuen, eta igandean berriro egingo dugu herritar guztien aurrean. Proba saioz arrikatsua goak ikusi ditugu programa horretan, eta haliabide tekniko nahikoa ez duteela esatzen, adarra jartzea dela iruditzen zaigu», esan zuten. Gazteek azken momentuan beste duela bat antolatuta zuten, eta herenegun biza anaien arteko proba ikusi ahal izan zen Berrako plazan.

Tolosa



OSASUN ZERBITZUA, EZBAIAN

Tolosalde Osasun Publikoaren Alde plataformak salatu duenez, Asuncion Klinikari, gutxienez, gaur egun lanpostuetako %53a falta zaila. Datua Gipuzkoako ospitale publikoekin konparazioa egingo atera dute eta lanbeteleko informazio batzaren eraman zuten. «Tolosaldeko bizilagunok Asuncioneko hutsuneak dagokionez, 600 keza gehiago jarri ditugu, eta zer lortu dugu? anbulategian digestio-zerbitzuko espezialista egotea, adibidez», azaldu zuten. Horiek horrela, Tolosaldean «beste eskualdeetan bezala ordainduz, osasun zerbitzu kaaskarragoa dugu», esan zuten. © I. CALVO

Villabona



MUSIKA LAPURRETAK SALATZEKO

Larunbat arratsaldean musika izan zen nagusi Villabonako Errebotte plazan. SOS Lapurretak jaialdia egin zuten Lain taldeak izandako lapurretaren harira, eta Ze esatek, Gugaz (rudian), Hesian eta Lauroba taldeak entzuteko aukera izan zen. © I. CALVO

Altzo



HAUR HEZKUNTZA, DANTZAN

Larunbatsan Altzoko ikasleek ikasturte bukaerako jaialdia ospatu zuten. Hurrengo urtean DBH egitera Alegjara joango diren Xabier, Joanes, Iñaki, Mikel eta Klaudia agurtzeko unea izan zen jaialdiko une hunkigarrienetako bat, eta, bestea, 10 urte gure artean egon eta Erezioko ikastetxera doan Eli agurtzeko momentua. © I. CALVO



"Biketeta sistema garestiagoa bada ere kudeaketa ziklo osoa kontutan izanik merkeagoa da atez atekoa eta lanpostu gehiago sortzen du."

Josu Amilliba, Ekonomikaria

Lizartza



EGIAREN BILA JARRAITZEN DUTE

32 urte dira Jose Migel Etxeberria Alvarez Naparra desagertu zela, eta herenegun 100 bat lagun bildu ziren Lizartzako lola baserrian dagoen orotamari gertara salatu eta bere sendiari babesa eskaintzeko. Etxaladi ibiliko bezain hunkigarria izan zen eta bertaratutakoek «32 urte hauetan sentituzkoak eta Euskal Herria oraindik ere zer gertatu zen jakin gabe» jarraitzen dutela salatu zuten. «Lanean jarraitu beharra daukagu bere sendiari eta Euskal Herriari zor diogun egilearen bila» gaineratu zuten. © I. CALVO


Tolosa



DANTZA TAILERREKOEN SAIOA

Ikasturtea amaitzean den honetan, jaialdi ugari eginen ari dira azken hilabeteetan ikasturteko erakusteko. Kultur etxeko dantza tallerrekoek ere pasa den igandean eskaini zuten ikasturte amaierako jaialdia, Leidor aretoan. © I. CALVO

Tolosa



HODEI TRUK-EN 25. URTEURRENA

Herenegun arratsaldean Hodei Truk abesbatzaren 25. urteurrenaren ospatzeko, Hodei Truk Hirukide, Hodei Truk, Hodei eta Hodesbertz taldeak elkaru ziren jendez betetako Berdura plazan. «Kontzertu alala, freskoa eta energiaz beterikoa», eskaini zuten David Azurza zuzendariak azaldu duenez. © I. CALVO



Osasunogatik
 Ingurugiroak
 Inoizkoen gutxielako
 Ongizate arrazoiengatik
 Serme-alabengatik
 Arrazoi ekonomikoengatik
ondo
 egitera
goaz

Etxaburua eta Esnaola izan dira onenak, Tolosan

Euskal Herriko Sega Txapelketako lehen jardunaldia izan da; bigarrena larunbatean izango da, Etxalekun

E. Maiz Tolosa

Tolosan jokatu zen, igandean, Euskal Herriko Sega Txapelketako lehen saioa. Alatzne Etxaburua zizurkildarra eta Igor Esnaola legorretarra izan ziren onenak Iurreamendiko belardian. Azkartasuna eta txukuntasuna hartzen dituzte kontuan Almitza elkarteak antolatzen duen sega txapelketa honetan.

Gizonezkoen sailkapenean, Es-

naolaren atzetik, Goenaga, Mitxelena, Altzo eta Artzelus sailkatu ziren lehen bost postuetan. 100 metro karratuko sailak moztu behar izan zituzten. Nesken kasuan, Etxaburua, Otamendi, Ainhoa Galarraga, Imaz eta Aloña Galarraga izan ziren lanak bukatu zituzten lehen bost sailkatuak. 23 urtez azpiko kasuan, mutiletan, Oier Urkola anoetarra izan zen onena, eta nesketan, Ainara Otamendi. 16 urtez azpikoetan lehena, Aimar Garmendia izan zen.

Lehiaketa honetan, puntuaketa sistema erabiliko dute. Bigarren jardunaldia, Etxalekun izango dute segalariek hilaren 23an, 17:30etik aurrera. Azkena, berriz, uztaillaren 22an jokatu dute, Zaldibian.

Giza Proba txapelketako finalerako txartela ez du ziurtatu, Zizurkilek

Orio eta Urretxu pasa dira finalera; Zizurkilek, Berrobi eta Aitzondo taldeekin neurtu beharko ditu indarrak

E. Maiz

Zizurkilgo taldea, Orio eta Urretxurekin batera aritu zen Gipuzkoako Giza Probako txapelketako kanporaketan. Urretxun jokatu zen lehen kanporaketa, eta Orioko taldea izan zen onena. Oriotarrak 49 plaza egitea lortu zuten, finalerako txartela eskuratu.

Herritarren aurrean 47 plaza eginda, Urretxu taldea sailkatu zen bigarren finalerako txartela ziurtatuz. Zizurkildarrek, ordea, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Hauek, 38 plaza egin zituzten, eta honenbes-

tez, kolokan dute finalerako txartela. 1.000 kiloko harriari tiraka aritu behar izan zuten, eta 20 minutu izan zituzten ahalik eta plaza gehien egiteko. Uztaillaren 31n, Amasa-Villabonan jokatu den bigarren kanporaketan parte hartzeko aukera izango dute, zizurkildarrek. Kasu honetan, Aitzondo eta Berrobi taldeekin batera neurtuko dituzte indarrak. Kanporaketa honetatik bi talde pasako dira finalera.

Bidegoian eta Errezil

Errezilgo San Antoni festei amaiera emateko, larunbatean giza proba antolatu zuten Errezilen. Bidegoiango taldearen aurka egin zuten, eta etxekoek irabazi zuten. Bidaniak 35 plaza eta 14 metro egitea lortu zuen. Errezilek, aldiz, 39 plaza egin zituzten. Bidaniko festetan izango dute errebantxarako aukera



Errezilgo eta Bidegoiango taldeak (beltzez), giza proba desafioan. HITZA

Hassan Ait Chau eta Maud Combarieu dira Txindoki igotzen azkarrenak

155 parte hartzaile izan dira III. Txindoki Bertikala proban; eskualdeko kirolari askok parte hartu dute

Eneritz Maiz Abaltzisketa

III. Txindoki Bertikala proba izan zen, igandean, Abaltzisketan. Hassan Ait Chau billabonarra eta Maud Combarieu urruñarra izan ziren Txindokiko tontorra zapalzen lehenak. Hassan Ait Chau lasterkariak 35 minutu behar izan zituen Larraitzeko langatik abiatuta tontorrera igotzen. Lehen emakumeak, hau da, Maud Combarieuk, 42 minutu eta 55 segundo behar izan zituen. Hirugarren urtez antolatu dute lasterketa, eta 155 parte hartzaile izan dira.

Emakumezkoetan, Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen bigarrena, eta segundo gutxira, Montserrat Vazquez iritsi zen. Beteranoetan, Nerea Amilibia zizurkildarra izan zen lehena, 44 minutu eta 42 segundoko denbora eginez. Gizonezko beteranoetan, berriz, Juan Mari Garin alegiarra izan zen lehena, 39 minutu 02 segundoko denborarekin.

Junior mailan, nesketan, Leire



Lasterkari askok, zati batzuetan oinez egin zuten Txindokira bidea. M.G.

↓ Sailkapena

NAGUSIAK (NESKAK)

1. Maud Combarieu (Urruña)	0.42.55
2. Aitziber Ibarbia (Zizurkil)	0.43.15
3. Montserrat Vazquez (Bilbo)	0.43.44

BETERANOAK (NESKAK)

1. Nerea Amilibia (Zizurkil)	0.44.42
2. Elena Calvillo (Beasain)	0.45.07
3. Karine Sanson (Salleboeuf)	0.47.57

JUNIOR (NESKAK)

1. Leire Fernandez (Errenteria)	0.53.28
---------------------------------	---------

Fernandez bakarrik atera zen. Mutiletan, berriz, Iñigo Unanue urretxuarraren atzetik, Aitor Urkola anoetarra eta Iñaki Orbegozo albizurtarra sailkatu ziren.

NAGUSIAK (MUTILAK)

1. Hassan Ait Chau (Villabona)	0.35.00
2. Iñigo Lariz (Elgoibar)	0.35.32
3. Mikel Beunza (Ultzama)	0.36.02

BETERANOAK (MUTILAK)

1. Juan Mari Garin (Alegia)	0.39.02
2. P. J. Gracia (Colmenar Viejo)	0.40.15
3. Pello Eskisabel (Ordizia)	0.41.09

JUNIOR (MUTILAK)

1. Iñigo Unanue (Urretxu)	0.39.15
2. Aitor Urkola (Añoeta)	0.41.17
3. Iñaki Orbegozo (Albiztur)	0.45.04

Eskualdeko kirolari askok parte hartu zuten lasterketan. Ikusleak ere gerturatu ziren, irteera puntuan, bidean zehar edo puntuan animatzera.

Zubeldia eta Amonarriz txapeldun

Halterofiliako 15 urtez azpiko txapelketa irabazi dute Goretzi Amonarriz eta Asier Zubeldiak

E. Maiz Amasa-Villabona

Neska eta mutilen halterofiliako Euskadiko 15 eta 17 urte azpiko txapelketak jokatu ziren, Villabonako Olaederra kiroldegian. 15 urtez azpiko nesketan, banakako sailkapen orokorrean, Goretzi Amonarriz da Euskadiko txapelduna, eta Susana Davila bigarren sailkatua. Taldekako sailkapenean, Danok Danena izan da Euskadiko Txapelduna. 15 urtez azpiko mutiletan, banakako sailkapen orokorrean, Asier Zubeldia izan da Euskadiko txapelduna eta Lyan Edel hirugarren sailkatu zen. Taldekako sailkapen orokorrean, Danok Danena Euskadiko txapeldun geratu da Asier Zube-



Asier Zubeldia Danok Danenako pultsularia, Euskadiko. HITZA

dia, Lyan Edel eta Gaizka Ferreirarekin.

17 urtez azpiko nesketan, banakako sailkapen orokorrean, Goretzi Amonarriz bigarren eta Susana Davila hirugarren sailkatu ziren. Taldekako sailkapen orokorrean bigarren sailkatu ziren. 17 urtez azpiko mutiletan, banakako sailkapen orokorrean Asier Gallego bigarren sailkatu zen, eta taldekakoan Danok Danena txapeldun geratu zen, Asier Gallego, Asier Zubeldia, Lyan Edel eta Gaizka Ferreirarekin

Bestetik, Halterofiliako Espainiako Maila Nagusiko Txapelketa jokatu zen Bartzelonan. Bertan izan ziren Danok Danena Halterofilia taldeko pultsulariak. 69 kiloko kategorian, Igor Sasiain hirugarren sailkatu zen, eta Jon Sasiain seigarren; 85 kilokoan, berriz, Francisco Gonzalez zazpigarren eta Jon Ander Iriarte bederatzigarren sailkatu ziren; eta 94 kiloko kategorian, aldiz, Teddy Martinez bigarren sailkatu zen, eta Francisco Cruz seigarren geratu zen.

Sanchis, Merino eta Teruel garaile, VIII. Villabona-Zizurkil Sari Nagusian

Leire Olaberria ikaztegiatarra bigarren sailkatu zen, bezperan Bergaran hirugarren egin eta gero



Leire Olaberria izan zen probako bigarrena, elite mailan. HITZA

Iñigo Terradillos

Anna Sanchis (Bizkaia-Durango) elite mailan, Eider Merino (Tallerres Artolozaga) junior mailan, eta Alba Teruel (Gandia) kadete mailan gailendu dira Villabona-Zizurkilgo VIII. Sari Nagusian. Espainiako Kopako bigarren proba zen herenegun jokaturakoa, eta 130 txirrindulari aritu ziren lehian.

Elite mailari dagokionez, probaren aurretik sailkapen orokorrean lider zen Eneritz Iturriagak ez zuen parte hartu. Izan ere, bezperan Bergaran jokatu zen probaren ondoren larrialdi zerbitzueta-
ra jo beharra izan zuen ondoezik

zela eta. Ondorioz, Sanchis igo da lehen postura sailkapen orokorrean herenegungo garaipenari esker. Bere atzetik, Leire Olaberria ikaztegiatarra gurutzatu zuen helmuga. Lasterketaren hasieran Sanchisek eta Olaberriak eraso egin zuten, eta 5 kilometro geratzen zirela, Sanchisek alden-

tzea lortu zuen, helmugara bakarrik iritsiz. Ikaztegiatarra 38 segundora ailegatu zuen. Nabarmen-tzekoa da larumbatean Bergaran jokatu zen proban ere parte hartu zuela Olaberriak, eta han hirugarren geratu zela.

Elite mailakoek 93 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta jubeni-

↓ Sailkapena

ELITE MAILA

1. Anna Sanchis (Bizkaia)	2:31:18
2. Leire Olaberria (Debabarrena)	2:31:56
3. Ane Santesteban (Bizkaia)	2:34:13

KADETEAK

1. Alba Teruel (Gandia)	44:57
2. Elisabet Escursell (Inverse)	44:57
3. Mireia Orengo (Gandia)	44:57

JUBENILAK

1. Eider Merino (Artolozaga)	1:50:05
2. Sheyla Gutierrez (Meruelo)	1:50:34
3. Alicia Gonzalez (Guttrans)	1:50:34

lek, berriz, 67koa. Azken itzulian Merinok alde egin zuen, eta lehen postuan amaitzea lortu zuen.

Kadeteek, bestalde, 27 kilometroko ibilbidea burutu zuten. Lasterketaren hasieratik burutu zituzten erasoak, eta azken esprintean Alba Teruel izan zen azkarrena.

Berrobi eta Bidegoian, aurrez aurre, Herriarteko Txapelketan

I. Terradillos

Berrobi eta Bidegoian nor baino nor ariko dira Gipuzkoako esku pilotako Herriarteko Txapelketako finalaurrekoetan. Berrobin izango dute joaneko partida, igandean, hilaren 24an, 11:00etan hasita.

Berrobik 3-0 egin du iragan asteburuan Andoianen aurka. 22-3 irabazi zuten kadeteek, 22-13 jubeni-
leik eta 22-5 nagusiek. Bidegoi-
anek, berriz, 2-1 irabazi zuten Azko-
tiaren aurka, beraz, 4-2ko
emaitzarekin lortu dute finaler-
diataroko txartela.

Bengoetxea hirugarren

Bestalde, Bengoetxea leitzarraz hirugarren postua lortu du bana-
kako txapelketan, iragan larun-
batean Idoate 22-9ko emaitzare-
kin garaitu ostean.

Fernandezen ontzia lehiatik at geratu da

Bi lema haustearen ondorioz, Volvo Ocean Race proba irabazteko ia aukerarik gabe geratu da ibartarraren taldea

I. Terradillos Ibarra

Volvo Ocean Race probako azken etapa amaituta, laugarren postuan da Xabi Fernandez ibartarraren Telefonica Team ontzia. Lehen postuan zen sailkapen orokorrean, eta baita zortzigarren etapan ere, baina Lisboatik (Portugal) Lorienterako (Frantzia) etaparen azken zatian erabat al-

datu da egoera ibartarrarentzat eta taldekideentzat. Bi lema hausti, eta hirugarrena hondatu zitzaizen sei orduren bueltan, eta ondorioz, lidertza galdu, eta azkenurreko postuan iritsi dira zortzigarren etaparen helmugara.

Groupama (219 puntu), Puma (196) eta Camper with Emirates (191) daude une honetan aurretik sailkapen orokorrean, azken hauek eurekin berdinduta. Galway-n (Irlanda) helmuga duen azken etapan 42 puntu daude jokoan, eta puntu horiek eskuratuta lehen postuan izango liritekeen arren, ezinezkoa dela esan dute, «abantaila handiegia baita».



Xabi Fernandez, zortzigarren etaparen une batean. MARIA MUJÑA

Jose txo Urrutia harrijasotzen lehena, Iparraldeko Joku Txapelketan

I. Terradillos Leiza

Nafarroako Iparraldeko Joku Txapelketari eman zitzaion hasiera iragan larunbatean, Iruñean. Bertan, Jose txo Urrutia leitzarra lehiatu zen. Harrijasotzen lehena izan zen, 3.625 kilo batuz (zilindroari 13 altzaldi, kubikoari 8 eta bolari 11). Txingetan, berriz, laugarren izan zen, 4 kale eginez. Hiru jardunaldia izango dira dena, eta bigarrena, Igandean, hilaren 24an izango da, Uharteko Iruñean, 13:00etan hasita.

Hilberriak eta urteurrenak



-ESKERONAK-

EKAITZ KORTADI BURGUILLO

Bere senideek eskertu nahi zaituztegu bihotz-bihotzez: arrauneko lagunak, lankideak, koadrila, Orereta ikastolako irakasle, ikasle eta langileak, Hibaika Arraun Elkartea, Pumpkin Akademia, Gene, Adengi, Aspace, Cafe Orereta Futbol Taldea, Berritzegune, Alboka Fisioterapia Zentroa, Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkartea, Hibaika Elkartea, eta nola ez, Arantzazu Ospitaleko sendagile eta erizainak. Ekaitzekin topo eta gozatu egin zenuten guztiok, denon artean bere bizitza errazgaitza izatea lortu genuelako. Mila esker zuen gertutasunagatik.

Muxu eta besarkada handi bat guztioi

Erreterian, 2012ko ekainaren 19an



JESUS MARI MUGERZA ARANBARRI

Gure artean zinen,
gure artean zara,
beti gogoan

LAB-CAF sail sindikala

Bizkaia, 2012ko ekainaren 19a



ANTONIA SAGASTUME LASA

(Jose Balerdiaren alarguna)
Ekainaren 17an hil zen, 103 urte zituela.

Agur amona maitea
nahiz eta gaur, agur esan behar
beti barre-barrean
gurekin izango zara.
Zure bilobak eta birbilobak

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta etor zaitezte! GAUR ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN, Alegiako SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Bidebarrieta, 3.
Oharra: Gorputz belia Tolosaldeko FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, ASTEARTEA goizeko 11:45ak arte.

Alegian,
2012ko ekainaren 19a



≈ 22°
≈ 16°

GOIZA LAINTUTA
ARRATSALDEA LAINTUTA
BEROENA 26°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaurdi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alto, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Leire Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 6732 74.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Narrea Esnaola. 4 urte.
Zorionak printxesa!
Etxekoak.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Irudia Asteasu



BERRIA EGUN JENDETSUA EGIN DUTE

Jende ugari bildu zen larunbat arratsaldean, Asteasun, Berria Eguna-ekin bat egiteko. 18:30ean hasi zituzten ekitaldiak trikitixa eta alboka kalejira batekin, Juan Tapiaren trikitixa eskolako kideen eta Jon Garmendiaren alboka eskolako kidearen eskutik, eta ondoren, frontoian, emanaldi nagusia egin zuten. Lehenik eta behin, BERRIA

egunkariko ordezkari batek hitz egin zuen eta gero Pello Errota eskolako haur abesbatzak saio berezia eskaini zuen (lehen irudia). Era berean, Andoingo Udala Musika Eskolako bandak ere emanaldia eskaini zuen. Jaiak plazan izan zuten jarraipena, izan ere, bertan parrillan egindako sardina jatea egin zuten. R.CALVO

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Alurr dantza taldeak datorren ikasturterako matrikulazio irekiko du uztailaren. Intereza dutenek matrikulazioa egiteko orria eta eskoletako ordu-tegiak kultur etxean eskuratu ahal izango dituzte datorren hiletik aurrera.
- **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak jakinarazten duenez, hasi dute jada, datorren ikasturteko matrikulazio kanpaina. Ikasle direnek gaur dute datorren ikasturtean izena emateko azken eguna, eta hilaren 26tik 29ra arte aurten instrumentua aukeratu behar dutenek egin ahal izango dute. Informazio gehiago nahi izanez gero 943 65 15 93 telefono zombakira deitu behar da, 10:00etatik 13:30era.
- **Alegia.** Bihar, hilak 20, 19:30ean udaletxean, Gipuzkoa Zero Zaborrek hitzaldia eskainiko du.

MUSIKA

- **Irura.** Loatzoko musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute, gaur, 18:00etan, musika eskolan.
- **Alegia.** Txintxarri eta Loatzoko abesbatzek musika eskolako ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute, gaur, 19:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Et Incarnatus orkestrak udarari ongi etorria egingo dio, gaur, 19:30ean, Urkizuko Iraolako zuloa izeneko tokian (telekomunikazio antenaren pean). Urtero eskaintzen dute solstizio kontzertua, eta ondoren jatekoa eta edatekoa izango da.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Ibarrako Eneko Haritzaren Lagunak kultur elkarte-koek egindako *Sua* filmaren grabazioko argazkiak ikusi daitetzeko kultur etxean, hilaren 29a arte.

Uda honetan **zatoz**
HITZAren itzalera

Egin harpidedun
Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra
eta jaso eguzkitako
hau oparri!

Harpidetu behar duzun
Ondorengo Surf Pribatuaren
surf taula
jokaburu duzu

Harmaratu jarraio:
902-82 02 01
harpidatza@hitza.info

hitza